

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek izango dira: Hasteko, guk lokal propio bat eduki beharko dugu, Japonetik iritsitako produktuak biltegira eraman ahal izateko, gauza guztiak antolatzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokal hau gurea denez, ez dugu inongo alokairurik ordainduko, bertan, ordenagailuak eta telefonoa edukiko ditugu, beraz, hauek ere kostu bat izango dute. Telefonoaren tarifaren kostua 30€-koa da, zuzena eta finkoa. Ordenagailuak bakoitzak 400€ balioko dute.

Guk egindako diseinuak Japonera bidaliko ditugu, eta bertan produktua fabrikatuko dute. Horrek beste kostu bat edukiko du, ohe bakoitza egiteak 900€-ko kostua izango du. Kostua aldakorra izango da, eskarien arabera, eta aldi berean zeharkakoa, guk Japoniako fabrikaren nagusiari ordainduko diogu, eta bera arduratuko da bere langileei ordaintzeaz. Baina guk hemen garestiago salduko dugunez, bertatik irabaziak lortuko ditugu. Beste kostu bat produktuen garraioa izango da, lehenik Japoniatik gure biltegira, eta ondoren, gure Tolosako dendara. Garraio hauen kostua 95€-koa izango da eta kostu guzti hauek aldakorrak izango dira, hau ere eskatutako produktu kopuruen arabera izango da. Hortaz gain, gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, langileen soldata 950€-koa izango da.